

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresaren oinarria sukaldaritza den horretan, sukaldaritza eta jakien inguruko zerbitzuak dira eskainiko ditugunak. Bertako profesionalak, sukaldaritza azaltzeaz gain, nutrizionistak ere izango dira, bertako kontsumitzaileentzat dieta espezifikoak sortuz.

Sukaldaritza klase alternatibo zein osasuntsuak emango ditugu, non bazkideek oinarritzko jaki orekatuak sukadatzen ikasiko duten. Horrez gain, klasea amaitzean, ikasleek sukaldatutako plater guztietatik tuperrak etxera eramateko aukera izango dute, horrela asteko janariaren zati handi bat prestatua izango dute.

Ildo beretik, asteburu edo egun berezietan eskaintza bereziak egingo ditugu, sukaldari berriak ekarriz gure sukaldara, festa ezberdinak antolatu... Esaterako, ostiraletan pintxo-pote moduko bat egingo genuke, sukaldatutako pintxoak janari prestatua saltzeko izango dugun postuan salduz, betiere edariekin batera.

Gainera, sukaldatutakotik soberan geratzen den janaria dendan bertan salduko dugu, janari prestatua saltzen den denda batean bezala. *Take away* eskaintza honetan edariak ere eskainiko ditugu, eta horrela bereizia eta bere kabuz funtzionatzen duen janari prestatuko postutxo bat izango dugu.

Amaitzeko, igande zein larunbat batzuetan, gure sukaldea berez itxia dagoenean, jendeak lokala alokatzeko aukera izango du, beraien bazkari, festa edo egun bezerriak bertan ospatu eta antolatzeko.